Berango
Guztion konpromisoa
Un compromiso común
www.berango.net
berangokoudala@berango.org
berangocomunicacion@gmail.com

BERANGO gaur

103 ZBKIA
2023KO
MARTXOA

ZERBITZU PUBLIKOA

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

8-M

Tximeleta efektua Berangora itzuli da berdintasuna aldarrikatzeko

8-M Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, gizartea kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko hainbat jarduera antolatu dira; besteak beste, escape room jardunaldi bat, kontzentrazioak, emanaldiak, tailerrak, herri martxa eta hainbat arlotako profesionalak protagonista izango dituen mahai-ingurua

Tximeleta efektuak, gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko helburuarekin Berangon bultzatutako gizarte mugimenduak, lila kolorez tindatuko du berriz ere Berango, **martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna** ospatzeko hainbat jarduera antolatu direlako.

Horretarako, Berangoko Udaleko Berdintasun Arloak programazio zabala antolatu du. “Aurten normaltasuna berreskuratu dugu pandemiaren ondoren, eta publiko guztientzako jarduerak antolatu ditugu. Gainera, kirol, euskara eta kulturan berdintasunezko parte-hartzea bultzatzen jarraitzen dugu” nabarmendu du Ederne Frontela Berdintasun eta Gizarte Ongizateko zinegotziak.

Alde batetik, hilaren **4an** eta **5ean** berdintasunaren aldeko escape room jardunaldiak eskainiko dira Santa Anako kultur etxean. Jolasaren bidez, gizon-emakumeen aurrerabidean emakumeek duten zereginari balioa emango zaio.

Ondoren, **M-8an** ohiko elkarretaratzea egingo da udaletxean **12:00etan**; bestalde, arratsaldean, **19:30ean**, Berangoko Emakumearen Kultur Elkarteak ekintza bat egingo du Sabino Arana kalean.

Ondoren, hilaren **11n**, **13:00etan**, emakumezkoen pala txapelketa egingo da frontoian, eta arratsaldean, **18:00etatik** aurrera, aurtengo egitarauko jarduera garrantzitsuenetako bat egingo da.

Zehazki, Moreaga parkean mahai-inguru bat egingo da gizarteko hainbat arlotako sei emakume profesionalekin. Bertan, aurrez aurre dituzten erronkak, lan-egoera eta abar aztertuko dituzte. Horri dagokionez, honako emakume hauek parte hartuko dute: Eunate Astralaga futbolaria, Mari López Berangoko Emakumearen Kultur Elkarteko presidentea, Ederne Frontela kazetari eta Berangoko Udaleko zinegotzia, Begoña Lumbreras baserritarra, Leire Gutierrez udaltzaina eta Patricia Ruiz Ordorika zirujaua.

Ondoren, **19:30etatik** aurrera, bakarrizketa eta bertso saioa egingo dira eta, azkenik, **20:30etan**, Emakumearen Elkarteak eta Nagusien Etxeak musika eta dantza emanaldia eskainiko dute.

Bestalde, hilaren **12rako** emakumearen ohiko martxa antolatu da, Berangoko Emakumearen Kultur Elkartearen Torrekolanda bideko egoitzatik abiatuta, **10:30ean**. Ibilbideak ordubete inguruko iraupena izango du. Ondoren, **11:00etatik 14:30era** haurrentzako tailerrak eta karaokea egingo dira Moreagan.

Gerra Zibila pairatu zuten familien omenezko monumentua

Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoak “Agurra” eskultura inauguratu du bere hamargarren urteurrena ospatzeko

Gerra Zibilaren ondorioak jasan zituzten 1936. eta 1937. urteetan Euskadiko milaka familiak. Gerraren ondorioak pairatu zituzten familia guztientzat, Berangoetako Udalak monumentu bat eraiki du oroigarri gisa. Berangoeta plazan ipini da, Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoaren sarreraren parean, hamargarren urteurrena ospatzeko xedez.

Zentzu horretan, eskulturaren inaugurazioa otsailaren 19an, igandean, izan zen.

“Museoa, batez ere, memoriarako gune bat da. Horretarako, beti izan dugu ilusio handia monumentu bat eraikitzeko, gerra pairatu zuten gizonei, emakumeei eta adingabeei erabateko omenaldia egiteko. Eskulturaren bitartez, aurrerapauso handi bat eman da bere oroitzapena betikotzearen alde, modu zehatz eta errealistan, herritar guztiek erraz ulertzeko moduan”, nabarmendu zuen Aitor Miñambres museoko zuzendariak.

Ehun pertsona baino gehiago bertaratu ziren. Agintariek museoa bisitatu ondoren, Anabel Landa Berangoko alkateak ongietorria eman zien bertaratutakoei, eta museoak azken hamar urteotan herrian izan duen ibilbidea eta garrantzia nabarmendu zituen. Ondoren, Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak hartu zuen hitza, eta Eusko Jaurlaritzak bere agintaldian Memoria Demokratikoa sustatzeko dituen asmoei buruz hitz egin zuen.

Berangok, Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoak eta museoa bultzatzen duten pertsonek ildo horretan egiten duten lana goraipatu zuen, eta zorionak eman zizkien lan horregatik.

Aitor Miñambesek, berriz, testuingurua eta esanahia azaldu zituen. “Gerra Zibilean euskal herritarrek jasandako sufrimendua adierazten du “Agurra” eskulturak, banatzera behartuta dagoen familia bat irudikatzen du. Hiru irudi: haur bat, emakume bat eta gizon bat. Haurra: haurtzaroa, goseak eta aireko bonbardaketek mehatxatua, herrialde urrunetan hartua, familiaren konpainiarik gabe. Emakumea: atzeguardian egindako lana, ekoizpena eta familiaren zama. Eta gizon gaztea, lasaia, frontera doana, bizia galtzeko arriskuarekin bere lurra eta demokrazia defendatzeagatik. Emozioz, sentimenduz eta samurtasunez betetako eskultura”.

1937ko euskal ilustrazio batean oinarrituta, “Agurra” Jaizkibel Galdategi Artistikoaren lana da, eta bihotzean gudu-zelaitik berreskuratutako brontzea du, Euskal Prospekzio Taldearen lanari esker.

Bestalde, Miñambesek gerraren ondorioak gehien pairatu zituzten pertsonak ere gogoratu zituen: erbesteratuak, errepresaliatuak, espetxeratuak eta, bereziki, Euskadi osoan eta bereziki Berangon bizia galdu zutenak. “Gure herrian 1937ko apirilaren 24an izandako bombardaketaren ondorioz, pertsona bi hil ziren, eta oraindik ez ditugu ezagutzen. Pertsona bi horiei omenaldia egiteko, arrosa zuri bi ekarri ditu, Gernikatik, bonbardaketa hartatik bizirik atera zen Emilio Aperribaik.

Bere herriaren, bere familien, demokraziaren eta Euskadiren defentsan frontean hil ziren zortzi gudari eta milizianoak ere gogoratu zituen: Pedro Ardeo Gabilondo, Manuel Aurrecoechea Larrondo, Ignacio Bilbao Sangroniz, Eusebio Eiguren, Juan Esturo Ormaechea, Marcos Jauregi Bera, Marcos Jauregi Ugarte, Basilio Zubeldia Iturrioz, baita preso hartu ondoren desagertutako Pedro Jesús Basauri Achitegi gudaria, eta frankistek fusilatutako Román Uria Laraudogoitia bizilaguna ere”, adierazi zuen.

Azkenik, ohorezko aurresku baten ondoren, monumentuaren oinarrian dagoen plaka desestali zen. Plaka horretan, “Agurra-Eskerrik asko zuen gaztaroa eman izanagatik” irakur daiteke, proiektu hau ahalbidetu duten erakundeak aipatuz.

“Agur Jaunak” entzuten zen bitartean, lore eskaintza egin zen eta bildutako pertsonak arrosak jarri zituzten monumentuaren oinean, emozioz beteriko ekitaldian. Bertan, gudarien eta milizianoen ondorengoek, Gernikako bonbardaketatik bizirik atera zirenek, errepresaliatutako gizon eta emakumeen senideek eta gerra eta ebakuazioa jasan zuten haurren senideek parte hartu zuten.

Proiekzio baten bitartez, Saharar herriari laguntza humanitarioa emateko udal proiektua ezagutu ahal izango dugu

Tindoufeko Bucráako Dairan 2009tik Udala bultzatzen ari den eguneko zentroari buruzko bideo bat proiektatuko da martxoaren 24an, 19:00etan, Berango Antzokian

1975eko urrian, Marokok Martxa berdea deitutakoarekin eta Marokok eta Mauritaniak Mendebaldeko Saharan egindako inbasio militarrarekin, saharar herriaren amesgaiztoa hasi zen.

Fronte Polisarioak errefuxiatuen ihesaldi masiboa antolatu zuen. Horiek kanpamentuetan kokatzen dira, gehienak Tindouf basamortuan, Aljerian.

Han, kanpamenduak barrutitan edo wilayetan kokatzen dira, eta herri edo Dairetan banatuta.

Zehazki, 2009az geroztik, Berangoko Udalak lankidetza estua du saharar herriarekin, urtero laguntza humanitarioko proiektu bat finantzatuz El Aaiún-go wilayan, Bucráako Dairan. Eguneko zentro honek Bucráa-Berango du izena eta adinekoentzat da. Sukaldea, erizaintza-gela, administrazio-bulegoa, adinekoentzako hiru gela eta komunak ditu. Zazpi pertsonak lan egiten dute bertan: zuzendariak, erizain batek, zaindari batek, zaharrak eraman eta erosketak egiteaz arduratzen den txofer batek eta hiru sukaldarik. Guztira, 40 erabiltzaile baino gehiagori ematen die zerbitzua.

Pandemia dela eta, Udaleko udal arduradunek bi urte baino gehiago zeramatzaten gune hori bisitatu ezinik, baina joan den abenduan itzuli egin ziren, egunero bizi duten egoera gertutik ezagutzeko eta proiektuaren jarraipena egiteko; izan ere, atzerriko erakundeek sustatutako gunerik finkatuenetako bat da. Bertara joan zen Anabel Landa Berangoko alkatea, eta zentrorako materiala eraman zuen. “Arropa eta oinetakoez gain, eskatu zizkiguten bizikleta estatikoak ere eraman genituen; izan ere, eguraldia oso gogorra da han, eta adinekoek ezin dute kalean ariketa fisikoa egitera irten”, adierazi du alkateak.

Landa 2000. urtetik ari da lurraldea bisitatzen zentroa ireki aurretik, eta pozik dago proiektuak urte hauetan izan duen bilakaerarekin. “Eguneko zentroa oso ondo doa. Proiektua sendotuta dago, baina saharar herriak bizi duen egoera

gero eta zailagoa da eta bizi-kalitatea gero eta txarragoa”, deitoratu du.

Horregatik da hain garrantzitsua Berangoko Udalak saharar herriari eskaintzen dion zerbitzua. Izan ere, abian jarri aurretik, zentrora joaten ziren adineko asko bakarrik geratzen ziren beren etxeetan, inork zaindu gabe, gazteak lanera joaten baitziren. Udalbatzak bere begiekin ikusi du zentroak nola funtzionatzen duen eta jarraipena etengabea da. Hala ere, funtsezkotzat jotzen dute herritarrak kanpamenduetako egoeraz sentsibilizatzen eta kontzientziatzen jarraitzea. Hori dela eta, Udalak proiekzio bat antolatu du hilaren **24an, 19:00etan**, Berango Antzokian. Bertan, zentroko arduradunen eta erabiltzaileen testigantzak ikusi ahal izango dira, baita laguntzaren eragina eta bizi duten egoera ere. Gainera, Dann Hoyosen musikak girotuko du ekitaldia.

Icaza Jauregiari buruzko erakusketa Moreaga parkean

Hilean zehar informazio-panelak jarriko dira, eraikinaren argazkiak erakusteko

Martxoan zehar, Moreaga parkean Icaza Jauregiari buruzko erakusketa bat egongo da. Horretarako, eraikinaren birgaitze-proiektuari buruzko informazio-panelak jarriko dira, barruko gelen argazkiekin, udalerriko bizilagunek eraikinaren ezaugarri nagusiak ezagutu ahal izateko.

Icaza jauregia, udalerriko eraikinik ospetsuenetako bat, tokiko ondarearen parte da, eta kultura-helburuetarako erabiliko da. Berangoko Udalak eraikin nagusia eta albokoa eskuratu zituen, Otxabene sektoreko lehen egikaritze-unitatearen kudeaketaren ondorioz, hirigintza-aprobetxamenduaren % 15aren zati batekin hirigintza-trukea egin zelako. Jabetza eskuratu ondoren, Udala hura birgaitzeko proiektu batean ari da lanean, herritar guztientzat irekita egongo den eta hainbat udal-zerbitzu hartuko dituen kultura-gune bihurtzeko.